Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Marian Zendoia Irigoien

Zumaia, Gipuzkoa (1949)



Aurkibidea

Biografia



Ardantzatxiki baserrian jaioa, 7 anai-arrebako familian. Maria eta Jose ikastetxera joaten hasi zen 3 urterekin. Batxiler laboraleko ikasketak egin zituen. Zumaiako ikastolako andereño izatea proposatu zioten eta Elbira Zipitriaren andereñoen erresidentziara joan zen prestatzera Donostiara. Zumaian hastekoa bazen ere, Oikian andereñoa falta zutela eta azkenean bertan hasi zen lanean 1968an. Urtebeterako joan zen, baina 8 urtez gelditu zen. Gero Zumaiako ikastolara pasa zen. Aldi berean, Bergarako UNED-en Filosofia eta Psikologia ikasten aritu zen. Baina irakasle titulua edukitzea beharrezkoa bihurtu zenean, ikasketa horiek utzi eta magisteritza ikasten hasi zen. Zumaiako ikastolaren historiaz eta bere ibilbideaz aritu zen "Andereño Marian" elkarrizketa honetan.

Zintak

ZUM-121

- **Proiektua**: Zumaiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkue Ibarbia, Xabier
- **Data**: 2024-06-26
- **Iraupena**: 78 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Odria, Haizea

Pasarteak

1. "Andereño Marian"

- **Erref**: ZUM-121/002
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:00:28. **Bukatu**: 00:01:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
"Andereño Marian" izan da beti Zumaian. 1949ko urtarrilaren 23an jaio zen.

2. 27 urterekin etxe aldaketa

- **Erref**: ZUM-121/003
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:01:15. **Bukatu**: 00:03:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ardantza baserrian jaio zen eta 27 urtera arte hor bizi izan zen. Bi urteko alaba zeukan orduan eta Aita Mari auzategira joan ziren bizitzera. Izan ere, Oikiako ikastolatik Zumaiakora etorria zen lanera eta bigarren ume bat izateko nahia zeukan gainera. Lehen amatasun baimenik ez zen izaten.

3. Ardantzatxiki baserria

- **Erref**: ZUM-121/004
- **Iraupena**: 0:00:26. **Hasi**: 00:03:13. **Bukatu**: 00:03:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak

Laburpena:
Ardantzatxiki baserrian jaio zen Marian. Herritik joanda lehenengo etxea da. Alboan itsatsita beste etxe bat eraiki zuten. Gaur egun bere ahizpa eta anaia bizi dira baserrian eta etxetxoan.

4. Ardantza auzorako bide txarra

- **Erref**: ZUM-121/005
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:03:39. **Bukatu**: 00:04:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:
Ardantza auzoa herrigunetik urruti zegoen orduan. Bidea ez zegoen asfaltatuta eta oinez edo bizikletaz ibiltzen ziren. Argirik ere ez zegoen. Carmelo Unanueren lantegia zegoen bide amaieran eta hortik baserrira bonbilla bakarra zegoen. Sasiz inguratutako bide estu eta iluna zen, lokaztua.

5. Ikasketen garrantzia

- **Erref**: ZUM-121/006
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:04:45. **Bukatu**: 00:06:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Maria eta Jose ikastetxera joan zen 3 urterekin. 12 ikasleko taldea ziren, gehienak ezagunak zituen alde zaharreko umeak. Gurasoek beti izan zuten etorkizunera begirako ikuspegia eta seme-alabek ikasketak egitea nahi izan zuten. 7 anai-arreba ziren eta baserrian ez zegoen guztientzat bizimodua ateratzerik. 10 lagun bizi ziren baserrian eta soldata bakarra zegoen.

6. Aita, herriko uren kudeaketako langilea

- **Erref**: ZUM-121/007
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:06:45. **Bukatu**: 00:07:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Aitak udaletxean egiten zuen lan, uren kudeaketan. Bera eta Serafin Aldalur arduratzen ziren Zumaiako eta Oikiako uren zereginez. Oikiara bizikletaz joaten zen aita. Soldata xume horrekin 7 ume mantendu behar zituen.

7. Ama, erriberetako baratzetan lanean

- **Erref**: ZUM-121/008
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:07:24. **Bukatu**: 00:08:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Amak erriberetako baratzetan lan asko egiten zuen. Baba eta artoa ereiten zituen eta gero saldu. Erriberako lur gehienak mojenak ziren. Amak bi zelai zituen alokatuta han, etxeko baratzeaz gain. Trenez Azpeitira joaten zen baba saltzera eta handik arropak eta beharrezko gauzak ekartzen zituen. Amak beti zeukan buruan seme-alabek ikasi egin behar zutela, guztiek baserritik ez zeukatela bizitzerik eta.

8. Zumaian batxilerra egiteko aukera

- **Erref**: ZUM-121/009
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:08:35. **Bukatu**: 00:10:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
3 urterekin hasi zen mojekin eskolan. Orduan ez zegoen batxilerrik; oinarrizko ikasketak 14 urterekin amaitu eta emakumeak etxean gelditzeko prestatzen ziren. Baina mojetan batxilerra ezarri zuten eta Marian eta bere ikaskideek aukera izan zuten 3 urtez batxiler laborala egiteko. Gero bakoitzak bere aldetik jarraitu zituen ikasketak. Marianek Zarautzen amaitu zuen batxilerra.

9. Eskolan gazteleraz, lagunekin euskaraz

- **Erref**: ZUM-121/011
- **Iraupena**: 0:04:37. **Hasi**: 00:10:53. **Bukatu**: 00:15:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Zumaian mutilek fraideekin ikasten zuten eta neskek mojekin. Dena gazteleraz ikasten zuten. Marianek ez zekien gazteleraz, baina azkar ikasi zuen eta ez zuen arazorik izan. Lagunekin euskaraz egiten zuen baina isilpean, bestela mojek zigortu egiten zituzten. Patioan euskaraz egiteagatik zigortu zuten: igande arratsaldean eskolan egon behar izan zuen, Goiko plazan dantzaldia zegoen bitartean.

10. Eskolaren eraginez, kalean ere erdaraz

- **Erref**: ZUM-121/012
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:15:30. **Bukatu**: 00:16:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskolan gazteleraz egiteko derrigortasunak kalean ere horrela hitz egitea ekarri zuen jende askorentzat. Gaur egun ere batzuek ohitura hori mantendu dute baina Marianek euskarari eutsi dio.

11. Zumaiako ikastolaren sorrera

- **Erref**: ZUM-121/014
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:17:23. **Bukatu**: 00:20:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Bere ahizpa txikiena eskolan hasi zenerako ikastola martxan hasita zegoen, Eguzkiñe Senosiainekin. Hasieran 6 urtera arte zen. Geroago segida eman zitzaion, Aita Mari zinemaren gaineko lokal batean. Hasieran Eguzkiñe bakarrik zegoen andereño, gero Nati Lopetegi eta Itziar Senosiain gehitu ziren. Umeak gehitu ahala lokal gehiagoren beharra ikusi zuten. Elizak babesa eman zien eta parrokia azpian utzi zien tokia. Euskarazko hezkuntzarekiko kontzientzia zabaltzen hasi zen guraso eta gazteen artean. Andoni Ormazuri eta beste batzuek biltzen hasi ziren eta Zumaiako ikastolan beste gela bat gehitzeko beharra ikusi zuten. Mariani andereño izatea proposatu zioten orduan.

12. Andereño izateko prestatzen

- **Erref**: ZUM-121/015
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:20:21. **Bukatu**: 00:23:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Mariani Zumaiako ikastolako andereño izatea proposatu zioten eta Donostiara joan zen prestatzera. Han andereñoen egoitza zegoen, Elbira Zipitria eta haren ondorengoek kudeatua. Ikastoletan praktikak egin zituen, baita ikastaro eta hitzaldietara joan ere. 1968an izan zen hori.

13. Oikiako ikastola, oikiarren eskuekin egina

- **Erref**: ZUM-121/017
- **Iraupena**: 0:04:12. **Hasi**: 00:24:20. **Bukatu**: 00:28:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:
1968an andereño ikasketak egin eta gero, udan Donostiako Okendo jatetxean lanean ibili zen. Irailean Zumaiako ikastolan hastekoa zen, laugarren andereño gisa (aurretik Eguzkiñe eta Itziar Senosiain eta Nati Lopetegi zeuden). Aldi berean, Oikiako gazte eta gurasoek uda osoa pasa zuten ikastola prestatzen, apaizak utzitako lokal batean. 6 urtez azpiko 27 ume zeuzkaten bertan ikasten hasteko prest, baina andereñoa falta zuten. Beraz Marian Zumaian hasi beharrean Oikian hasi zen andereño.

14. Oikiako ikastolan andereño

- **Erref**: ZUM-121/018
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:28:32. **Bukatu**: 00:31:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
27 umerekin eta Marian andereño zutela eman zioten hasiera Oikiako ikastolari. Herriko giroa aldatu zela dio Marianek, alaiagoa bihurtu zen. Zumaiako ikastolan hastekoa bazen ere, Oikian andereñoa falta zutela eta urtebeterako joan zen. Baina urtea pasa ondoren ez zuen alde egin nahi, gustura zegoen. Umeak ere oso pozik joaten ziren eta gurasoek lasaiago egin zitzaketen baserriko lanak.

15. Ikastolarako materiala beraiek sortu behar

- **Erref**: ZUM-121/019
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:31:58. **Bukatu**: 00:33:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Ikastolarako materiala beraiek sortu behar izaten zuten. Zumaiako ikastolarekin elkartzen ziren astean behin eta esperientziak eta materialak elkarbanatzen zituzten. Udan ikastaroak egiten zituzten, Loiolan andereño guztiak elkartuz. 8 urte egin zituen Oikiako ikastolan.

16. Oikiara joateko garraioak

- **Erref**: ZUM-121/021
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:34:03. **Bukatu**: 00:36:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Zumaiatik Oikiara trena zegoen lehen. Bartoloren autobusean ere joaten zen batzuetan. Hark baserritarrak Goiko plazako merkatura ekartzen zituen goizean eta 9:00etan Oikiara bueltan Marian eramaten zuen. Bizikletaz ere joan izan zen. Oikiako mutil batek erabiltzen ez zuen motoa ere oparitu zion. Beste batzuk ere eraman ohi zuten autoan.

17. Oikiako ikasleen aukerak 6 urtetik aurrera

- **Erref**: ZUM-121/022
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:36:05. **Bukatu**: 00:36:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Oikiako ikastolako umeek 6 urte betetzen zituztenean hiru aukera zituzten: bertako eskolan maistra erdaldunarekin ikastera pasa edo Zumaiako ala Zarauzko ikastetxeetan ikasketak jarraitu.

18. Igandetan bertsoak eta antzerkia

- **Erref**: ZUM-121/023
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:36:59. **Bukatu**: 00:39:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Marianek bertsoak idazten zituen igandeko mezan Oikiako umeek kantatzeko. Herri guztia hunkituta egoten zen entzuten. Antzerkia ere egiten zuten arratsaldetan frontoian. Andereño egon zen 8 urteetan giro polita egon zen Oikian.

19. 1972ko krisia ikastolan

- **Erref**: ZUM-121/024
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:39:08. **Bukatu**: 00:41:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Bere gaztaroa mugimendu askoko garaia izan zen, arlo guztietan. Dena egiteko zegoen. Euskara batuaren sorrera eta H-aren auzia orduantxe izan ziren. Oikian bakarrik zegoenez ez zuen ikastolaren gatazka sumatu, baina Zumaian bai. Ikastolak fama txarra hartu zuen eta ume asko galdu zituen. Baina guraso batzuk ausartak izan ziren.

20. Zumaiako eta Oikiako guraso apartak

- **Erref**: ZUM-121/025

- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:41:22. **Bukatu**: 00:43:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Zumaiako ikastolako gurasoak apartak izan dira, beti laguntzeko prest. Bazekiten zer nahi zuten: umeentzako eskola euskalduna. Lan pila egin zuten. Larraulgo aterpetxea ere gurasoek prestatu zuten.

21. Andereñoen hasierako egoera

- **Erref**: ZUM-121/026
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:43:26. **Bukatu**: 00:44:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Andereño lanetan hasierako urteetan ez zuten gizarte-segurantzarik. Guraso elkarteak ordaintzen zien. Soldatak ordaintzeko askotan tonbolak edo tabernak jarri behar izaten zituzten. Elizaren babespean zeuden, ikastola legeztatu gabe zegoelako. Irakasle tituluak ere ez zeuzkaten.

22. Irakasle titulua Bergarako unibertsitatean

- **Erref**: ZUM-121/029
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:46:45. **Bukatu**: 00:49:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Astean zehar Aita Mariko ikastolan lan egiten zuen haur txikiekin, eta ostiralean Bergarako unibertsitatera joaten zen Filosofia eta Psikologiako ikasketak egitera. Han lo egin eta larunbat arratsaldetan bueltatzen zen Zumaiara, askotan Jesus Mari Larrazabal "Tarzan"-ekin. Momentu batean irakasle titulua edukitzea beharrezkoa bihurtu zen eta ikasketa horiek utzita, magisteritza ikasten hasi zen, Bergaran bertan, beste 4 urtez.

23. Marian joan ondoren, Oikiako ikastolaren bidea

- **Erref**: ZUM-121/030
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:49:15. **Bukatu**: 00:52:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
8 urtez andereño lanetan ibili eta gero, Oikiako ikastola utzi eta Zumaiakora joan zen. Maria Pilar Manterola izan zen bere ordezkoa, baina 2 urteren ondoren utzi beharra izan zuen, ez zeukalako titulurik. Garai hartan ikastola eta eskola publikoa batu egin ziren eta Feli Uria hasi zen irakasle. 12 urtera arte Oikian euskaraz ikasteko aukera izan zuten horrela.

24. 1994ko ikastolen gatazka

- **Erref**: ZUM-121/031
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:52:50. **Bukatu**: 00:54:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
1994an Zumaiako ikastola publifikatu egin zen eta Sagarbideko eraikin berria egin zen. Urte latzak izan ziren baina aurrera egiteko indarra izan zuten.

25. Bi eskolen bateratzearen zailtasunak

- **Erref**: ZUM-121/033
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:55:43. **Bukatu**: 00:57:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:
Garbi zeukaten D eredua nahi zutela eta hori defendatu zuten. 1994an ikastolaren publifikazioarekin 2 eskolek bat egin behar izan zuten Zumaian. Irakasle erdaldunei euskara ikastea erraztu zitzaien. Elkartze hori ez zen erraza izan, bakoitzak bere lan egiteko modua zeukalako, baina umeengatik egokitu ziren.

26. Pedagogia berritzaileen bila

- **Erref**: ZUM-121/034
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:57:47. **Bukatu**: 00:59:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Andereñoek pedagogiako ikastaro asko egin zituzten. Elbira Zipitriaren pedagogia aurrerakoia jarraitu nahi zuten. Bartzelonara ere joan ziren hango eskolak ikustera.

27. Haur hezkuntzako umeen euskalduntzea

- **Erref**: ZUM-121/035
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:59:33. **Bukatu**: 01:03:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Zumaiako guraso erdaldunek seme-alabek euskaraz ikastea nahi zuten eta jarrera oso onarekin hurbiltzen ziren ikastetxera. Marian 2 urtez egon zen haur hezkuntzako ume erdaldunei euskara klase intentsiboak ematen.

28. Seminarioko mutilak ikastolako maisu

- **Erref**: ZUM-121/037
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 01:04:13. **Bukatu**: 01:07:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
40 urtez egon da ikastolan lanean eta hasierako urteak latzak izan ziren. Lan asko egin behar izaten zuten. Etxean sortzen zuten materiala. Seminarioko mutil asko sartu ziren maisu ikastolan. Zumaian, adibidez, Joanito Dorronsoro izan zen horietako bat. Joxantonio Ormazabal Zarauzko ikastolan egon zen. Honen lagun bat, Gaintzakoa, maisu izan zen Zumaian, Andoni Ormazuriren etxean egoten zen apopilo.

29. Euskal idazleak materiala sortzen

- **Erref**: ZUM-121/038
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 01:07:08. **Bukatu**: 01:08:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Euskal idazleak haurrentzako liburuak sortzen hasi ziren: Joxantonio Ormazabal (honen lagun bat Zumaian zegon maisu), 'Txiliku', Mariasun Landa, Anjel Lertxundi... Herri guztietan zegoen ikastolari bere ekarpena egin nahi zion jendea. 1968. urtea mugimendu handikoa izan zen. Udan hurrengo ikasturtea prestatzeko ikastaroak eta bilerak egiten zituzten.

30. Euskarako gau-eskolak ematen

- **Erref**: ZUM-121/040
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 01:08:58. **Bukatu**: 01:10:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Euskarako gau-eskolak ematen ibili zen ikastolaren lokalean, apaizetxe azpian, 1970 inguruan. Gazte mugimenduak antolatzen zituen; Herri Gaztedi eta Oargi bezalako taldeak zeuden Zumaian. Jendea ez zegoen euskaraz alfabetatuta orduan. Oikian andereño zegoen garaian izan zen.

31. "Bizitzan egin dudan gauzarik onena"

- **Erref**: ZUM-121/041
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 01:10:55. **Bukatu**: 01:12:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ostegun gauetan Oikiara joaten zen, hango gazte eta gurasoek antolatzen zuten asteroko bilerara. Ikastolan zeuden beharrak adierazi orduko oikiarrak martxan jartzen ziren. Umeekin gustura egin du lan eta andereño izatea bizitzan egin zuen gauzarik onena izan da Marianentzat.

32. Guardia Zibilaren bisitak ikastolan

- **Erref**: ZUM-121/043
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 01:12:38. **Bukatu**: 01:16:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Lanbideak » Polizia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Oikiako ikastolan lasai-lasai egoten ziren. Baina mugimendu handiko urteak ziren, frankismoan, debekuak handik eta hemendik, protestak eta grebak... Zumaian guardia zibilak bizi ziren eta Oikiako ikastolara ere noizean behin joaten ziren, ikurrina non zeukaten galdezka.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-14

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com